



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEEN EMOZIOAK ETA GAITASUN SOZIALA

Egilea: Maialen Basterretxea Zubia

Zuzendaria: Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2017ko maiatzaren 29an

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teorikoa.....	4
1.1. Adimena eta gaitasun handiak	4
1.2. Kontzeptuak argitzen: superdotazioa, talentua eta goiztiartasuna	5
1.3. Adimen gaitasun handiko ikasleen gaitasunak azaltzeko eredu ezberdinak	6
1.3.1. Errendimenduan oinarritutako ereduak	6
1.3.2. Orientazio soziokulturaleko ereduak	6
1.3.3. Eredu kogntiboak.....	8
1.3.4. Gaitasunetan oinarritutako ereduak	9
1.4. Mitoak eta usteak	10
1.5. Adimen gaitasun handiko ikasleen ezaugarriak eta profil ezberdinak.....	11
1.6. Adimen gaitasun handiko ikasleen beharrianak	12
1.7. Adimen gaitasun handiko ikasleen emozioak eta gaitasun soziala eskolan.....	13
2. Metodologia	15
3. Lanaren garapena	17
4. Ondorioak	21
5. Erreferentzia bibliografikoak	23
ERANSKINAK	25
1. Eranskina: Jarduerak	26
2. Eranskina: Materiala	41

ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEEN EMOZIOAK ETA GAITASUN SOZIALA

Maialen Basterretxea Zubia

UPV/EHU

Adimen gaitasun handiko haurrak identifikatzea eta hauen ezaugarri eta beharretara egokitutako hezkuntza pertsonalizatua ematea ezinbestekoa da. Hala, badaude hezkuntza arloan aplikatu daitezkeen zenbait metodo, hala ere, gehienak alderdi akademikoari erantzuna ematera bideratuta daude. Alabaina, sarritan, arrazoi ezberdinengatik, ikasle hauek beharrezko emozionalak erakusten dituzte eta oso gutxitan erreparatzen diogu alderdi horri. Horregatik, lan honen helburua, adimen gaitasun handiko ikasleen alderdi emozionala nola garatu daitekeen erakustea da, horretarako, kasu erreal batean oinarrituta, proposamen didaktiko bat planteatzen delarik.

Gaitasun handiak, emozioak, hezkuntza, sozializazioa, autoestimua

Es imprescindible identificar a los niños y niñas que presentan altas capacidades intelectuales y darles una respuesta educativa personalizada acorde con sus características y necesidades. Así, existen diversos métodos que se pueden aplicar en el ámbito educativo, sin embargo, la mayoría están dirigidos a dar respuesta a la parte académica. No obstante, a menudo, por diversas razones, estos alumnos y alumnas presentan necesidades emocionales y pocas veces tenemos en cuenta esta parte. Por ello, la finalidad de este trabajo es enseñar cómo se puede desarrollar el componente emocional del alumnado con altas capacidades, basándose en un caso real, y planteando para ello una propuesta didáctica.

Altas capacidades, emociones, educación, socialización, autoestima

It is essential to identify children who have high intellectual capacities and give them a personalized educational response according to their characteristics and needs. Thus, there are several methods that can be applied in the educational field, even so, most of them are aimed at responding to the academic part. However, often, due to different reasons, these students present emotional needs and we rarely consider this part. Therefore, the purpose of this work is to show how to develop the emotional component of the students with high skills, based on a real case, and creating a didactic proposal.

High capacities, emotions, education, socialization, self esteem

Sarrera

Adimen gaitasun handiko ikasleak aurkitzea hezkuntza eremuetan gero eta ohikoagoa da eta arrazoia ez da gero eta gehiago direla, baizik eta gero eta gehiago identifikatzen direla zorionez. Maiatzaren 3ko, hezkuntza arloko, 2/2006 Lege Organikoak dioenez, gaitasun handiak erakusten dituzten ikasleak hezkuntza premia berezidun ikasletzat hartzen dira. Hau honela izanik, beharrianak identifikatzen diren momentu beretik eskaini beharko zaie atenzioa, beti ere, normalizazioan eta inklusioan oinarrituta.

Beraz, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak dira nahiz eta gizartean zabaldua dagoen ideia hori ez izan, gainera badaude ikasle hauei erantzun akademikoak emateko zenbait teknika edo metodo. Hala ere, askotan ahazten zaigu, ez direla talde homogeneoa, heterogeneoa baizik, hau da, gaitasun handiko ikasleen artean ere aniztasuna dagoela eta ondorioz ezinbestekoa dela hezkuntza erantzun hori ikasle bakoitzaren ezaugarri eta beharrianei egokitzea.

Ikasle hauek, guztiok ezagutzen ditugun ezaugarri komunak erakuts ditzakete, hala nola, gainontzeko ikasleengandik bereizten dituen inteligentzia maila, beraz, arlo akademikoan nabarmentzen dira. Baina badaude beste hainbat ezaugarri gizarteko kide gehienok ezagutzen ez ditugunak eta ondorioz, kontuan hartzen ez ditugunak ikasle hauen hezkuntza planifikatzean, horien artean hauen emozioak eta gaitasun soziala lirateke garrantzitsuenak. Beraz, ikasle hauen garapen akademikoari garrantzia ematen zaion moduan, ezinbestekoa da garapen soziala zein emozionala lantzea.

Hau guztia aintzat hartuz, lan honetan, adimen gaitasun handiko ikasleen inguruan hitz egingo da emozioei eta trebetasun sozialei garrantzi berezia emanaz. Honi lotuta, eskuhartze didaktiko baten proposamena egingo da nahiz eta praktikan ez jarri, hori dela eta, ez da emaitzik egongo. Era berean, aipatzekoa da, proposamena inklusioan oinarrituta egongo dela eta ikasle hauen emozioak eta trebetasun soziala lantzerantz bideratuta egongo dela. Kasu erreal batean oinarrituta garatutako eskuhartzea izango da eta ondorioz, kasu horretan protagonista den neskatoaren ezaugarriak hartuko dira jarduerak prestatzeko abiapuntutzat. Honekin batera, aipatzekoa da, nahiz eta gaitasun handiko neskato honentzat prestatutako jarduerak izan, ikasle guztien parte hartzea ezinbestekoa izango dela, elkarlana izango baita oinarria.

1. Marko teorikoa

1.1. Adimena eta gaitasun handiak

Gaitasun handien inguruan hitz egiterakoan, adimen-gaitasunak aipatzea ezinbestekoa da. Kontzeptu honek adimenari egiten dio erreferentzia eta honi dagozkion ereduak eta kontzeptuak aldatzen joan dira azken mendean. Honela, gaur egun adimena, bizitza osoan zehar garatzen doan ezaugarri dinamiko eta aldakor bezala ezagutzen da eta ez adimen psikometriko bezala, hau da, ez da ikusten ikuskera estatiko eta unitario bezala. Gainera, aipatzekoa da, honen garapenean hainbat faktorek parte hartzen dutela, hala nola, bakoitzak heredatzen dituen potentzialtasunek, inguruneak eta alderdi kualitatibo pertsonalek.

Adimenaren kontzeptua aldatzearen ondorioz, gaitasun-handien eta honi dagozkion jardueren inguruko ideiak ere aldatzen ari dira eta adimen kontzientearen (AK) funtzionaltasuna ere zalantzan jarri da. Izan ere, Stenbergen-en (1997) esanetan, “goi-mailako errendimenduan, prozesu kognitibo zehatz batzuk erabiltzen dira informazioa prozesatzeko, berritasunari aurre egiteko edo arazoak konpontzeko” (Stenberg, 1997, Eusko Jarularitzak, 2013 aipatua: 10). Beraz, bere ideia AKtik aldentzen da, hiru adimen mota bereiziz eta era berean, arlo profesionalean zein bizitzan arrakasta izateko hiru hauen garapena ezinbestekoa dela aldarrikatuz. Gerrig eta Zimbardok (2005) honela definitzen dituzte Stenbergekin (1997) adierazitako hiru adimen motak: analitikoa (informazioa prozesatzeko oinarrizko gaitasunak), sortzailea (bi mutur ezberdin maneiatzeko gaitasuna: arazo berriak eta ohiko arazoak) eta praktikoa (eguneroko egoerak maneiatzeko kapazitatea, hau da, testuinguru berri eta ezberdinetara egokitze gaitasuna, testuinguru egokiak aukeratzeko eta ingurunea bakoitzaren beharrezanetara egokitze abilezia).

Hau guztia aintzat hartuz, Stenbergekin (2011), bost irizpide proposatzen ditu gaitasun handiak deskribatzeko (Stenberg, 2011, Marinak, 2012 aipatua: 253):

1. Bikaintasunaren irizpidea: gizabanakoa dimentsio batean edo gehiagotan bere berdinekiko gailentzen da. Hala ere, kontuan hartu behar da bikaintasun hori jarduera guztietan ez ematea posible dela eta aldatu egin daitekeela bizitzan zehar.
2. Arrarotasunaren irizpidea: haur bat “superdotatu” kontsideratzeko, ohikoa ez den gaitasun bat izan behar du.

3. Emankortasunaren edo produktibitatearen irizpidea: haurren bikaintasuna erakusten duten gaitasunak produktibitate bideratuta egon behar dira, hau da, gaitasun dinamikoa izan behar da.
4. Frogapenaren irizpidea: gaitasunei dagokienez, beste haurrengandik bereizten duen bikaintasuna test bat edo batzuen bidez edo ebaluazio baliagarri baten bidez frogatua izan behar da.
5. Balioaren irizpidea: gizabanakoak gaitasun bikaina erakutsi behar du gizarteak baloratua izan dadin.

Hala ere, honen aurrean, Gardnerrek (1998) adimenen inguruko beste ideia bat adierazten du, ikuspegi berritzaileagoa hain zuzen ere. Honek adimena inguruak edo/eta kulturaren bidezko estimulazioaren bidez indartzen den edo ez den potentzial bat dela defendatzen du eta hainbat adimen-mota daudela dio, zortzi zehazki, gero azalduko denez. Beraz, aditu honek, gaitasun handiekiko zehaztasun kontzeptual batzuk ezartzen ditu hauek bikaintasun bezala izendatuz. Beraz, kasu honetan, garrantzitsua litzateke, gaitasun handiei erreferentzia egiten dieten kontzeptuak argitzea, hurrengo puntuan egingo den bezala (Gardner, 1998, Moyak eta Miguelek aipatua, 2011: 24).

1.2. Kontzeptuak argitzen: superdotazioa, talentua eta goiztiartasuna

Adimen gaitasun handien inguruan hitz egiteko erabiltzen diren terminoak asko eta oso anitzak dira, ondorioz, guzti hauek barne hartzen dituen terminoa “adimen gaitasun handiak” litzateke. Hala ere, garrantzitsua da honen barruan sartzen diren kontzeptu esanguratsuenak bereiztea, izan ere, askotan esanahi berbera ematen diegu guztiei. Hona hemen PEAC (Programa de Enriquecimiento Educativo para alumnos con Altas Capacidades)-ek (2017), hau da, adimen gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza aberasgarritasunari dagokion programak, proposatzen dituen zenbait definizio:

- Superdotazioa: ikasle hauek arlo edo gai guztiak erraztasunez ikasten dituzte izan ere errendimendu intelektual altua erakusten dute gaitasun guztietan edo gehienetan. Ezberdintasunak kualitatiboak dira, hau da, gainontzekoek ez bezala egiten diete aurre atazei.
- Talentua: Ikasle hauek, arlo jakin batean zein batzuetan, edo alderdi kognitibo zein prozesaketa-mota batean, errendimendu handia erakusten dute, beste eremu batzuetan aldiz, errendimendu ertain edo baxua. Hala, talentuak ere sailka daitezkeela zioten Castellók eta Battlek (1998); alde batetik, talentu bakunak eta


nabarmentzen ditu. Beraz, adimenaz gain, beste faktore batzuei ere ematen die garrantzia. Autore honen arabera, inguruneak zuzenki eragiten du pertsona baten talentu eta gaitasunen garapena erraztean zein oztopatzean. Beraz, supergaitasunean bost faktore nabarmentzen dira, hauek faktore dinamiko eta estatikoz osatuta daudelarik (Tannenbaum,1997, Eusko Jaurlaritzak, 2013 aipatua: 15).

1. Ahalmen orokorra.
2. Gaitasun espezifikoak.
3. Adimenarekin zerikusirik ez duten faktoreak, izan ere, ikerketek diotenez, ikasle superdotatuak hautemateko eta ondorioz, identifikatzeko modua, kultura batetik bestera, aldatu egiten da (Freeman, 1998, Peña del Aguak, 2002 aipatua: 261)
4. Ingurunearen eraginak (adibidez, eskola, lagunak, familia...).
5. Zortea edo aukeraren faktorea.



2.Irudia: Superdotazioaren bost faktoreak (Eusko Jaurlaritzak, 2013)

Honekin batera, Mönksek (1992) *elkarrekiko mendetasun triadikoaren eredu*a sortu zuen superdotazioa gizabanakoaren eta haren ingurunearen arteko elkarreaginaren ondorioz sortutako fenomeno dinamiko gisa azalduz. Aditu honek, aurretik aipatutako Rezulliren ereduari hiru gizarte aldagai gehitu zizkion: familia, eskola eta lagunak (Mönks, 1992, Eusko Jaurlaritzak, 2013 aipatua:16).



2.Irudia: Mönksen eredu soziokulturala (Eusko Jaurlaritza, 2013)

Idea honi jarraituz, Tourón-ek (2004) dioenez, ikaslearen gaitasun sozialaren garapen arrakastatsua lortzeko, irakaslea gai izan behar da ikasle hauek behar duten laguntasuna emateko eta giro egoki bat sortzeko, non ikasleek beraien independentzia, autokonfiantza, ikasketekiko interesa eta ardura handitu ditzaketen.

1.3.3. Eredu kognitiboak

Stenberg (1986, 1993) nabarmendu zen *Adimenaren teoria triarkikoa eta superdotazioaren teoria pentagonala* izeneko teoriarekin. Teoria honek, gaitasun kognitibo handiak, sormena eta dimentsio praktikoa erlazionatzen ditu. Gainera, teoria triarkikoa, hiru azpiteoria hartzen ditu barnean ezohiko adimenaren izaera azaltzeko: osagaien teoria, esperientziarena eta testuinguruarena.

Osagaien azpiteoriak, adimenenean esku hartzen duten prozesu mentalen inguruko informazioa ematen du eta ondoko osagaiak barne hartzen ditu: metaosagaiak (gainerako osagaiak kontrolatzen dituzten egikaritze-prozesuak), egikaritze-osagaiak eta ezagutzak lortzeko osagaiak.

Esperientziaren azpiteoria, adimenarekin eta bizitzako esperientziekin erlazionatuta dago. Honek dioenez, aurretik aipatutako osagaiak berrikuntzei aurre egiteko eta informazioa automatizatzeko erabiltzen dira.

Testuinguruaren azpiteoriak, adimena eta pertsonaren kanpoko mundua barne hartzen ditu, ingurunea egokitu, hautatu eta egituratzeko mekanismoak aipatuz. Gainera, hainbat kulturatan adimentsutat hartzen diren jokabideak eta arazoak konpontzeko erabiltzen diren trebetasunak deskribatzen ditu.

Lehen azaldu den bezala, egileak adimen analitikoa, sortzailea eta praktikoa deskribatzen ditu eta honela dio: “Hiru adimenak elkarri lotuta daude, eta ezinbestekoak dira adimen arrakastatsu bat izateko, bai eta adimen-mota guztietarako ere” (Stenberg, 1986; 1993, Eusko Jaurlaritzak, 2013 aipatua: 16-17).

1.3.4. Gaitasunetan oinarritutako ereduak

Hemen Gardner (1984) nabarmentzen da *Adimen anizkoitzen* ereduarekin. Teoria honek ekarpen garrantzitsuak egin ditu. Alde batetik, bi faktore berritzaile sartzen ditu (adimen interpersonala eta intrapersonala); eta bestetik, ingurunearekin eta kulturarekin zerikusia duten faktoreek adimenaren garapenean daukaten eraginaren garrantzia azpimarratzen ditu. Honela, aditu honen ustez, adimena bizitzako gorabeheren zein kulturaren arabera aldatzen den ahalmena da. Berak, zortzi adimen-mota daudela dio (Gardner, 1994, Luz de Lucak, 2000 aipatua: 3):

1. *Adimen zinetiko-korporala*: Gorputzaren zein honen atal batzuen laguntzaz, arazoei irtenbidea emateko zein objektuak aldatu edo sortzeko gaitasuna.
2. *Adimen logiko-matematikoa*: Gaitasun logikoa, matematikoa eta zientifikoa.
3. *Adimen musikala*: Musika-formak sortzeko, identifikatzeko, aldatzeko, aztertzeko zein interpretatzeko abilezia.
4. *Adimen espaziala*: Espazioaren irudikapen mentalak sortzeko eta bertan jarduteko gaitasuna.
5. *Adimen linguistikoa*: Hizkuntza erabiliz ingurua ulertzeko, interpretatzeko, sortzeko edo adierazteko trebetasuna.
6. *Pertsona arteko adimena*: Gainontzekoak ulertzeko eta haiekin harremanak sustatzeko ahalmena da, haien motibazioak, asmoak eta gogo-aldarteak ulertzekoa hain zuzen ere.
7. *Pertsona barruko adimena*: Norberaren emozioez eta sentimenduez jabetzeko gaitasuna da, norberaren buruaren benetako eredu bat sortzeko eta bizitzan jokatzeko ahalmena eta era berean, helburuak finkatzeko eta trebetasunak, gabeziak eta premiak balioesteko trebetasuna.
8. *Adimen naturalista*: Natura ezagutu eta interpretatzeko ahalmena.

Aipatutako guztia aintzat hartuz, esan daiteke, ideia berriena eta ikasleak bere osotasunean aintzat hartzen dituen, Gardnerrek defendatzen duena dela. Ondorioz, gaur egungo hezkuntzan oinarritzat hartzeko eredu egokiena aditu honena litzateke.

1.4. Mitoak eta usteak

Tourónek (2016) dioenez, aniztasunari eman beharreko erantzuna eta era berean, ikasle bakoitzaren ezberdintasunen aurrean erakutsi beharreko errespetua eta hauei eman beharreko babesa, gaur egungo edozein hezkuntza sistematan presente egon beharko litzateke. Hala ere, gaitasun handiko ikasleei dagokienez, gutxi asko egin da ikasle hauen hezkuntza beharrezko erantzuna emateko. Izan ere, ikasle hauek dituzten ezaugarri pertsonalak kontuan hartuz, beraien kabuz behar bezalako garapen pertsonala lortzeko gai direla pentsatzeko joera dago.

Mito nagusi honez gain, Castrok (2008) dioenez, beste batzuk agertzen dira:

- Oso ohikoa da ikasle hauek ezaugarri homogeenak dituztela pentsatzea. Benetan ez da hala, izan ere, aniztasun izugarria dago beraien artean.
- AK altua izateagatik definitzen dira, zehazki 130ren gainetik, talentudun haurrak 125 ingurutik kokatzen dira.
- Errendimendu akademiko altua erakusten dutenez, erantzun akademiko espezifikorik ez dutela behar pentsatzen da.
- Haur arraroak direla eta gaitasun sozial urria daukatela pentsatzeko joera dago.
- Eskolako jarduerak egitean oso motibatuta aritzen direla pentsatzen da.
- Eskola errendimenduan arazorik izango ez duten haurrak direla uste da.
- Irakasle batzuek ume estimulatuak soilik direla diote, hau da, gaitasun handiko hauren existentzia ukatzen dute.
- Irakasleek eta gurasoek ikasle hauek presionatu behar dituztela pentsatzen da, horrela bere gaitasun mailarekin bat datorren errendimendu akademikoa lortzeko.
- Irakasle batzuek uste dute, ezaugarri hauek erakusten dituen ikasle bat gelan edukitzeak beraien lana erraztuko duela eta era berean, ikasle hauek ikasteko erakusten duten erraztasunaren ondorioz, beraien lana eraginkorragoa izango dela.
- Gaitasun handiak dituzten ikasleen irakasleak gaitasun handikoak izan behar direla pentsatzeko joera dago.

1.5. Adimen gaitasun handiko ikasleen ezaugarriak eta profil ezberdinak

Gizartean orokorrean gertatzen den bezala, heterogeneotasuna nabarmentzen da gaitasun handiak dituzten ikasleen artean ere. Beraz, elkarri eta ingurune sozial zein kulturalari eragiten dioten ezaugarri batzuk erakusten dituzte, hauen arabera, gaitasunak gehiago edo gutxiago garatzen direlarik.

Hauek lirateke ikasle hauengan nabarmentzen diren ezaugarriak (Eusko Jaurlaritza, 2013):

- Jakin-min handia eta ikasteko gogo handia erakusten dute txikitatik, oso jarrera aktiboa, bizkorra eta kontzentratzeko gaitasun handia izanik.
- Arrazoi konplexuak eman ditzakete eta hainbat gertaera eta egoeren arteko loturak ulertzeko gai dira.
- Ohi baino lehenago heltzen dira heldutasunera eta/edo garapenari dagozkion hainbat arloren garapenean desoreka erakusten dute, hau da, eremu sozial, kognitibo, psikomotorra eta afektiboa ez dira era berean garatzen.
- Epe luzerako oroimen nabarmena daukate eta gauzak gogoratzeko, oroitzapenak berreraiki egiten dituzte haiek berreskuratu beharrean.
- Hizkuntza ezin hobeto erabiltzeko gai dira, modu zehatz eta aberatsean. Hala, mezu zehaztugabe edo anbiguoak agertzean jarrera sentikorra erakuts dezakete.
- Pentsamenduari dagokionez, bere adineko hurrek baino sinbolikoagoa eta abstraktuagoa dute.
- Ikasteko gaitasun handia daukate, hau azkar egiten dutelarik. Sarritan induktiboki ikasten dute eta informazio ezberdinaren artean loturak egiteko gai dira.
- Oso sentikorrak dira eta emozio biziak erakusten dituzte.
- Bere adinarekin bat ez datorren umore-sen handi eta landua daukate.
- Sormen handia eta irudimen aberats eta malgua dute. Hala, gai dira arazoak beste ikuspuntu batetik begiratu eta hauei irtenbideak emateko.
- Zereginak era egokian egiteko eta gauzak hobetzeko joera dute.
- Haur hauek dituzten kezkek eta interesak ez datoz bat daukaten adinarekin, nagusiagoak diren haurrekin baizik. Gainera, gai bati buruzko ezagutza handiak izan ditzakete.
- Berez motibatzen dira, borondate handia dute eta besteenekiko desberdina den pentsamendua, irizpide eta balore propioekin.

- Gizarte-arazoekiko kezka ohi baino lehenago adierazten dute, esate baterako, gai hauen inguruko kezkek izaten dituzte: bidegabekeriak, gerrak, gosea, ekologia, eta abar.
- Arauekiko jarrera kritikoa dute, hauen zergatiak jakin nahi izaten dutelarik.

Hau guztia aintzat hartuta eta ikasle hauen artean izugarrizko aniztasuna egon daitekeela kontuan hartuz, Castrok (2008), zazpi profil ezberdin bereizten ditu ikasle hauen artean:

1. Haur arrakastatsuak edo eskola errendimendu egokidunak.
2. Eskola errendimendu baxua duten haurrak.
3. Kulturalki ezberdinak diren haurrak.
4. Gelan oharkabe pasatzen diren haurrak.
5. Desafioa ematen duten haurrak edo haur sortzaileak.
6. Elkarren artean erlazionatutako gabeziak dituzten haurrak.
7. Bere kabuz ikasten duten haurrak.

1.6. Adimen gaitasun handiko ikasleen beharrizanak

Gaitasun handiko haurretan beharrizanak haur hauek dauzkaten gabeziengatik zein ahalmenengatik ager daitezke, izan ere, biek eragingo dute bere gaitasunen, interesen, motibazioen, sozializazioaren eta alderdi emozionalen erabateko garapenean eta garapen orekatuan. Beraz, garrantzitsua da haur bakoitzaren alderdi indartsuak eta alderdi ahulak ezagutzea (Elices, Palazuelo eta Del Caño, 2006).

Nahiz eta beharrizanak ikasle batetik bestera alda daitezkeen eta era berean, guztietan berdin agertzen ez diren, Belleverrek (2013) dioenez, zenbait beharrizan erakusten dituzte haur hauek eta garrantzitsua da haur bakoitzarenak espezifikoki identifikatzea. Honez gain, aipatzekoa da, haur jakin batek beharrizan aldaketak jasan ditzakeela bere garapen momentuaren arabera, familia testuinguruaren edo testuinguru sozialaren arabera, etab. Beharrizan hauek, kognitiboak, hezkuntza arlokoak, emozionalak zein sozialak izan daitezke eta haurraren ongizatea eta oreka lortzeko, beharrezkoa da guztiei aldi berean erantzutea. Hauek dira, sarri agertzen diren beharrizanak:

- Segurtasuna eskaintzen dion inguru afektibo bat behar dute, hau da, diren bezalakoak izanda onartuak diren inguru bat, izan ere, dituzten gaitasunak izanda ere, entzuten dituztela eta errespetatuak direla sentitzea behar dute.

- Inguruko laguntza jasoz, beraien burua ezagutzeko beharrik daukate, horrela, gaitasun handiak izatearen abantailak eta desabantailak ezagutzuz edo bere indarguneak eta zailtasunak ezagutzuz.
- Errespetuan eta ulermenean oinarritzen den giroa behar dute, non onartuak diren eta estimulazioa ahalbidetzen den, honela bere garapen soziala eta emozionala bultzatzeko. Hau da, beste haur batzuekin eta talde sozialekin erlazionatu behar dira, honen bidez ezberdintasunak errespetatzen eta balioesten ikasteko, gainontzekoekin enpatizatzen, arau sozialek moldatzeko, beraiengandik espero dena eta bere jarreraren ondorioak ulertzeko, etab.
- Inguru aberasgarria, estimulatuzailea, dinamikoa eta malgua behar dute, non motibazioz jardun dezaketen, beraien kezkek zein jakin-minak ase ditzaketen, garatu daitezkeen, ikasi eta adierazi ditzaketen, imajinatu eta sortu dezaketen, etab.

1.7. Adimen gaitasun handiko ikasleen emozioak eta gaitasun soziala eskolan

Adimen gaitasun handiko haurren ezaugarri emozionalak dagokienez, ikasle hauek gaitasun enpatiko handiagoa daukate, hau da, sentiberatasun berezia erakusten dute besteen sentimenduen aurrean. Era berean, arrazoiak etiko altua daukate eta honek erakusten du “ontasuna” eta “gaizkia”, “zuzena” eta “okerra”, edo adibidez, “justizia” bezalako kontzeptuez oso goiz hasten direla arduratzen (Palazuelo, Marugán, Del Caño, De Frutos eta Quintero, 2010).

Hala ere, adituek iritzi ezberdinak eta askotan kontrakoak erakusten dituzte ikasle hauek dituzten emozioen eta gaitasun sozialen inguruan, jarraian ikus daitezkeen bezala.

Swordek (2005) baieztatzen du ikasle hauen konplexutasun kognitiboa konplexutasun emozionalaren eskutik doala, ondorioz, bere bizipen emozionalak nahasiagoak eta intentsuagoak direla gainontzeko haurren aurrean (Sword, 2005, Pattik, Brackettek, Ferrándizek eta Ferrandozek, 2011 aipatua : 147). Ildo beretik jarraituz, Hollingworthek (1942), Janos eta Robinsonek (1985) eta Tannembaumek (1983) adierazi zuten, haur hauek arrisku handiagoa daukate oreka sozial zein emozionalari lotutako arazoak izateko (Hollingworth, 1942; Janos eta Robinson, 1985; Tannembaum, 1983, Palazuelok et al., 2010 aipatua: 52). Era berean, Dabrowskik (1977) dioenez, adimen gaitasun handiko haurrek sentimendu intentsuak dituzte eta horiek era ezberdinetara ager daitezke, hala nola, inhibizioa edo lotsa erakutsiz; euforia, gogo handia edo

harrotasuna adieraziz edo beste era konplexu batzuetan (Dabrowski, 1977, Martínek, 2004 aipatua: 83)

Idea ezberdina defendatzen dute Termanek (1925) eta Freemanek (1983), izan ere, aditu hauek diotenez, adimen gaitasun handiko haurrek ez dute arazo emozionalik erakusten, are gehiago, haur hauek, orokorrean oreka egokia erakusten dute eta positiboki pentsatzeko gaitasuna, erresilientzia emozional hobea eta malgutasun mental handiagoa daukatelako nabarmentzen dira (Terman, 1925 eta Freeman, 1983, Palazuelok et al., 2010 aipatua: 52). Era berean, ideia honi lotuta, ikasle hauekiko existitzen diren estereotipoen kontra, zenbait adituk diotenez, onartuak eta errespetatuak sentitzen badira, beste pertsona batzuekin erlazionatzean erabat gozaten dute eta hortaz, sozialki integratuta sentitzen direnean, autoestimu altua garatzen dute (Pérez et al., 1999, Palazuelok et al., 2010 aipatua: 52).

Beraz, gaitasun handiak erakusten dituzten ikasleak beraien adin bereko ikaskideak bezain egokituak izan daitezke. Hala ere, hezkuntza testuinguruek ikasle hauen ikasketa erritmoa eta garapen intelektualaren maila aintzat hartzen ez dutenean, beraien garapen sozio-emozionalerako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak aurki ditzakete (Renzulli, 2004; Pérez et al., 1999, Palazuelok et al., 2010 aipatua: 53).

Hau guztia aintzat hartuz, Gómez eta Mirrek (2010) diotenez oso garrantzitsua da ikasle hauek detektatzea eta oso kontuan izatea, gero beraien hezkuntza beharizan bereziei erantzuna emateko, izan ere, askotan detektatzen dira baina ez da esku hartzen, gaitasun handiak izateagatik laguntzarik behar ez dutela pentsatzen baita. Honekin batera, beste aditu batzuek diotenez, ikasle hauen alderdi ezberdinetako (akademikoa, soziala, sormena, motibazioa...) hezkuntza beharizanak identifikatzean, erantzun bat eman behar diegu bere gaitasunei, aukerei, interesei edo ikasketa erritmoari. Beraz, irakaslea ezinbesteko pieza da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, bai ikasleekiko harremanetan eta bai erabiltzen duen metodologian (Bruner, 1962; Deci, Scwartz, Sheinman eta Ryan, 1981; Rosenshine, 1995, Hernández eta Borgesek, 2010 aipatua: 38).

Hala ere, Hernandezek eta Borgesek (2010) diotenez, ikasle baten bizitza akademikoa ez da ikaskuntza-irakaskuntzara mugatutako jardueretan soilik oinarritzen, izan ere, ikaslea testuinguru sozial batean garatzen da, non irakasleak eta ikaskideak presente dauden. Era berean, familiek ere badute bere lekua testuinguru honetan eta ezinbesteko funtzioa betetzen dute. Hauek guztiek, ikaslearen garapenean eragiten dute eta nola edo hala, honen errendimendu akademikoan ere bai.

López Díazek (2010) dioenez, ikasle guztien beharizan akademikoez gain, aurretik esan dugun bezala, ezin da ahaztu, potentzial intelektual altua izatea ez dela guztia jakitearen sinonimoa, hau aintzat hartuz, esan daiteke gaitasun handiak erakusten dituzten ikasleek hezkuntza sozial eta emozionala jasotzeko beharizan handiagoa erakusten dutela. Izan ere, aditu berak dioenez, sozialki, gainontzeko ikasleek ez dituzte ikasle hauek onartzen eta baztertu egiten dituzte arlo akademikoan gailentzen direlako eta lortzen dituzten emaitza akademikoak alderatzean beraien burua segurtasunik gabe eta beldurtuta ikusten dutelako. Hori dela eta, gaitasun handiak erakusten dituzten haurrak gainontzeko ikasleengandik ez onartuak sentitzeak eta ohiko mugimendu sozialetik baztertua bizitzeak, hauen egoera emozionalean eragina izan dezake, izan ere, bakarrik senti daitezke eta horrek, gainontzeko pertsonengandik urrunduta bizitzera bultzatzen ditu.

Arrazoi hauek direla medio, askoz garrantzitsuagoa litzateke eduki emozional eta sozialak lantzea, gaitasun handiko ikasle hauen nortasuna betetzeko eta gizartearen parte bilakatzeko. Era berean, eduki hauek sustatzea ezinbestekoa litzateke ikasle hauek ikasgelan lagun talde batean integratzeko, gainontzekoen gaitasunak eta trebetasunak identifikatzen ikasiz eta horrela, bere potentzial pertsonala guztiz garatzeko.

Hau guztia aintzat hartuz, Gómez eta Mirrek (2010) dioten legez, ikasle bakoitzak bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera izan behar du ikasgela barruan eta honetarako ezinbestekoa izango da adimen anitzen estimulazioa, pertsona integralak sortzeko helburuarekin, horretarako baloreak eta alderdi emozionalak landuz.

2. Metodologia

Nahiz eta adituek ikasle hauen emozioei eta gaitasun sozialari buruz iritzi ezberdinak izan, gizartean zabalduen dagoen ideia, Hollingworthek (1942), Janos eta Robinsonek (1985) eta Tannembraumek (1983) aipatutakoa da, hau da, gaitasun handiak erakusten dituzten haurrek, arrisku handiagoa daukatela oreka sozial zein emozionalari lotutako arazoak izateko (Hollingworth, 1942; Janos eta Robinson, 1985; Tannembraum, 1983, Palazuelok, Marugánek, Del Cañok, De Frutosek eta Quinterok, 2010 aipatua: 52). Era berean, aditu hauen ideari lotuta, Swordek (2005) ikasle hauen konplexutasun kognitiboa eta emozionala erlazionatzen ditu, elkarriz lotuta doazela esanez, hau da, ikasle hauek gainontzekoengandik bereizten duten maila kognitiboa dutela dio, ondorioz, ikasle hauen bizipen emozionalak ere ezberdinak dira besteenen aurrean, nahasiagoak eta

intentsuagoak hain zuzen ere (Sword, 2005, Patti, Brackett, Ferrándiz eta Ferrandozek, 2011 aipatua: 147). Honi lotuta, López Díazek (2010) dioenez, gainontzeko haurrek baino beharrian handiagoa erakusten dute hezkuntza sozial eta emozionala jasotzeko, horrela hauen nortasuna erabat garatzeko eta gizartearen parte direla sentiarazteko.

Hau aintzat hartuz, aditu hauen ideietan oinarritu naiz nire eskuhartzea prestatzeko orduan. Honekin batera, gaitasun handiak erakusten dituzten haurrak sozialki integratuta sentitzen direnean, autoestimua altua garatzen dutela diote beste aditu batzuek (Pérez et al., 1999, Palazuelok et al., 2010 aipatua: 52) ondorioz, hortik abiatuko da nire eskuhartzea. Hau da, trebetasun sozialak eta honekin lotuta, autoestimua eta autoezagutzak lantzea izango da jarduera hauen helburu nagusia, horretarako ikasleen arteko harremanak eta komunikazioa sendotzea garrantzitsua izango delarik.

Eskuhartzea prestatzeko eta testuinguru baten barruan kokatzeko, ikastetxe batean gertatutako honako kasu honetan oinarritu naiz:

Iraia 11 urteko neska da eta 24 ikasleek osatutako gela batean dago. Iraia adimen gaitasun handiko ikaslea da, Lehen Hezkuntzako bigarren urtean identifikatu eta diagnostikatu zuten froga ugari egin ostean eta bere koefiziente intelektuala 155ekoa da. Errendimendu akademikoari dagokionez, bikaina da arlo gehienetan, baina ingurune arloan eta matematiketan nabarmentzen da gehien, beraz, hauetan curriculum egokitzapena dauka eginda, hau da, beste maila batzuetako edukiak ere lantzen ditu. Honez gain, sormen handiko neskatoa da eta arte hezkuntzan zein idatzizko testuetan, gainontzekoen ideietatik at doazen ekoizpenak egiten ditu. Baina inteligentzia emozionalaren garapenari dagokionez, zenbait zailtasun erakusten ditu, hala nola, autoestimua baxua daukala ikusten da, bere lorpenak eta gaitasunak ez ditu batere balioesten, negatibotzat hartzen ditu, ezkututzen saiatzen baita. Era berean, ez dauka ohiturarik taldean ibiltzeko, esate baterako, jolastorduetan bakarrik egoten da, gehienetan patioko zelaian aurki daitezkeen animalia txikiak (inurriak, barraskiloak, zizareak...) bilatzen eta hauek aztertzen, izan ere, animaliekiko begirune berezia erakusten du, irakurtzen dituen liburuak, animalien ingurukoak dira beti, horrez gain, eskola bukatzean herrira jaisten da, herriko denda bateko animaliekin egotera eta jolastera.

Iraiaren egoera aintzat hartuz, jarduerak gaitasun handiak dituen neskato honen autoezagutza eta autoestimua indartzera bideratuta egongo dira gehienbat, hala ere, jarduera hauek, taldean integratzen ere lagunduko diote, ikasle guztiek parte hartuko

baitute, elkarlana eta komunikazioa oinarritzat hartuz. Horrela errazagoa izango da Iraia taldean integratzea eta era berean, gainontzeko ikasleek Iraia ezagutzea eta gaitasun akademiko horrez gain, beste trebetasun asko dituen neskatoa dela ikustea. Honez guztiaz aparte, garrantzitsua litzateke aipatzea, nahiz eta jarduerak ikasle guztien parte hartzea sustatzen duten eta ondorioz, hauentzat guztientzat baliagarriak diren, Iraia gabezien eta indarguneen arteko erlazio bat ahalbidetuz planteatutakoak direla. Esate baterako, jarduera askotan sormena erabiltzeko aukera izango du, edo animalien inguruan jarduteko, momentu oro bere autoestimua eta gaitasun soziala garatuz.

Bukatzeke, esan beharra dago, proposatzen ditudan jarduera batzuk, jada existitzen diren beste jarduera batzuetan oinarrituz planteatutakoak direla, beti ere, moldatuz, hala den kasuetan, iturria adierazita agertzen da. Hala ere, beste jarduera batzuk nire ekarpenak dira, bizipenetan oinarritutakoak.

3. Lanaren garapena

Jarduerak, hiruhilabete batean, astean behin, hau da, tutoretza orduetan eramango dira aurrera, horrela, konstantzia bat mantenduko da eta ez da momentu jakin bateko gauza izango. Urrian hasiko gara jarduera hauek egiten eta Gabonak arte iraungo dute, honela, ia kurtso hasieratik egingo diogu aurre egoerari. Guztira hamar jarduera planteatuko dira ikasle talde honekin burutzeko eta hauek martxan jartzerakoan ordena logiko bat mantenduko da horietako bakoitzarekin lortu nahi den helburuaren arabera.

Aurretik aipatu dudana bezala, jarduerak era ezberdinetakoak izango dira eta bakoitza helburu jakin bat lortzera bideratuta egongo da, nahiz eta erlazio zuzena dagoen guztien artean. Honakoa da jardueren antolaketa lortu nahi denaren arabera: hasierakoak (“Asmatu nor” eta “Zenbat maite dut...?”) irakasleak ikasgelako egoera aztertzeke erabiliko dira gehienbat, hau da, ikasleek, baina bereiziki Iraiak klasean daukan estatusa zein den ikusteko eta era berean bere buruarekiko eta gainontzekoekiko begirunea zenbatekoa den ikusteko; hurrengoa (“Ipurtargi txikiaren ipuina”), autoezagutza lantzerako bideratuta egongo da; jarraian datozenak (“Berdintasunean daude ezberdintasun handienak”, “Nor naiz ni?”, “Zoriontzen zaitut lagun” eta “Bizipenez josita gaude”) ordea, aniztasunaz ohartarazi eta besteei buruz gehiago jakiteko baliagarriak izango dira; ondorengoak (“Denon artean lor dezakegu!”), taldean lan egitearekin izango du zerikusia; eta azkenik (“Lagun ezkutua”), aurretik izandako esperientzia guztiak biltzen dituen

jarduera bat egingo da. Era berean, hiruhilabeteko egun guztietan (“Hitz goxoak zuri, hitz goxoak niri”) ikasleen autoestimua garatzen lagunduko duen jarduera bat burutuko da. Hau guztia aintzat hartuz, jarraian datozen jarduera hauek dira, inklusio giro batean, adimen gaitasun handiak dituzten haurren gaitasun sozialak eta batez ere, autoestimua lantzeko proposatzen diren jarduerak. Jarduerei buruzko informazio eta zehaztasun gehiago 1.eranskinean aurki daitezke.

Lehenengo jarduera: “Asmatu nor”

Jarduera hau irakasleak ikasgelako egoerari buruzko informazioa jasotzeko erabiliko da, hau da, ikasgelan ikasle bakoitzak duen tokia edo estatusa ezagutzeko. Izan ere, hortik abiatuta jarraian datozen jarduerak ikasleen beharrianetara egokituko ditu. Honetarako ikasle bakoitzari fitxa bat banatuko zaio non jokaera positibo batzuk eta negatibo batzuk agertuko diren. Beraz, ikasleek deskribapen bakoitza gelako beste ikasle batekin erlazionatu beharko dute.

Bigarren jarduera: “Zenbat maite dut...?”

Jarduera honekin, ikasleen autoestimuari eta bakoitzak taldeari ematen dion garrantziari buruzko informazioa jasotzeko aukera izango du irakasleak. Era berean, ikasleak bere buruarekiko eta besteekiko dituen harremanen inguruko hausnarketa txiki bat egingo du, bere autoezagutza eta gainontzekoen ezagutza bultzatuz. Honetarako, ikasleek orri zuri batean bihotz bat irudikatu beharko dute eta jarraian egingo zaizkien galderari era grafiko batean erantzun beharko diete, hau da, galdera bakoitzaren erantzuna, bihotzaren zati bat margotuz adierazi beharko dute. Galderak era honetakoak izango dira: “Zenbat maite duzu zure burua?” , “Zenbat maite duzu zure familia?”, eta abar. Bukatzeko, taldean eseriko dira eta hausnarketa txiki bat bideratuko du irakasleak galdera batzuk botaz, hala nola, “Nola uste duzue sentitzen dela norberarentzat bihotzaren zati txiki bat utzi duena?”.

Hirugarren jarduera: “Ipurtargi txikiaren ipuina”

Ikasleek beraien beldurren eta indarguneen inguruan hausnartzea da jarduera honen helburu nagusia eta era berean, gainontzekoenak ezagutzea eta errespetatzea, honetarako besteen lekuan jartzeko gaitasuna landuz. Honi lotuta, ikasleen autoestimua handitzeko

aukera ere emango du. Hau aurrera eramateko, “Ipurtargi txikiaren ipuina” (Ikusi 2.eranskina) irakurriko dute eta behin hau eginda, ikasle bakoitzak ipuinari buruzko galderak erantzun beharko ditu. Galderak ipuinaren edukiari buruzkoak eta bakoitzaren beldurren inguruan hausnartzekoak izango dira. Behin hau eginda, biribilean eseriko dira eta galderen erantzunak komentatuko dituzte eta elkarri iritziak, aholkuak... emateko aukera izango dute. Honekin batera, aipatzekoa da, irakasleak parte hartzea gomendatzen dela, ikasleen erreferente izanik, beldurrak guztiok dauzkagula ikus dezaten.

Laugarren jarduera: “Berdintasunean aurki ditzakegu ezberdintasun handienak”

Ezinbestekoa da ikasleak aniztasunaz ohartaraztea eta hau errespetatzen jakitea, ondorioz, hori izango da jarduera honen helburua. Honetarako, biribilean kokatuko dituzte mahaiak eta biribil horren erdigunean beste mahai bat kokatuko da. Azken honen gainean, lau aurpegi berdinean kutxa bat kokatuko da eta ikasleek hau margotu beharko dute eserita dauden lekutik mugitu gabe. Bukatzen dutenean, irudi guztiak batu eta elkarren ondoan jarriko dira konparatzeko eta hauen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak zerrendatzeko. Konturatuko dira, toki ezberdinetatik marraztu dutenez, irudi guztiak ezberdinak direla eta ondorioz, guztiak direla onargarriak. Jarraian, gurekin berdina gertatzen dela ondorioztatu beharko dute eta ikasgaia ez ahazteko eta behar den momentuetan gogorarazteko, kartulina handi batean idatziko dute bakoitzaren ezberdintasunek aberasten dutela mundua.

Bosgarren jarduera: “Nor naiz ni?”

Jarduera honetan, ikasleek sormena erabili beharko dute eta beraien buruaren aurkezpena (interesak, motibazioak, gaitasunak, gustuak...) egin beharko dute folio zuri batean, soilik irudiak erabiliz eta izena adierazi gabe. Behin hau eginda, irakasleak ekoizpen guztiak batuko ditu eta jarraian, ikasle bakoitzari bat emango dio azter dezan. Gero, biribilean eseriko dira eta bakoitzak irudian ikusten duena azalduko du. Ikusten duenetik abiatuz, egilea nor den asmatu beharko du. Bukatzeko, irudi bakoitzaren egileak bere burua aurkeztuko du irudian adierazitakoa azalduz. Jarduera honekin, autoezagutza eta gainontzekoen ezagutza bultzatuko da, honela, beraien artean dauden berdintasunak eta ezberdintasunak identifikatuz eta onartuz.

Seigarren jarduera: “Zoriontzen zaitut lagun!”

Jarduera honen helburua besteen gaitasunen eta indarguneen inguruko hausnarketa egitea eta ondorioz, hauen autoestimua eta motibazioa handitzea izango da. Era berean, jarduera honek aukera emango die beraien arteko komunikazioa hobetu eta harremanak sendotzeko. Hau burutzeko, biribilean eseriko dira eta txarteltxo batzuk izango ditu bakoitzak, horietan albo banatara dituzten ikasleentzat “Zoriontzen zaitut lagun...” esaldiarekin hasitako mezu bat idatzi beharko dutelarik. Era berean, ikasle bakoitzak txarteltxo bat eramango du etxera familiek bete dezaten eta irakasleak berak ere mezu positibo bat idatziko dio ikasle bakoitzari.

Zazpigarren jarduera: “Bizipenez josita gaude”

Bizipen ezberdinak entzungo dituzte ikasleek jarduera honen bidez eta beraien arteko komunikazioa hobetzea eta harremanak sendotzea ekarriko du honek, izan ere, besteen tokian jartzeko aukera izango dute. Honetarako, ikasle bakoitzak, bizipen positibo zein negatibo bat gogorarazten dion argazki bat ekarriko du eta argazki guztiak gelan zehar sakabanatuko dituzte. Denbora labur bat izango dute ikasleen argazkiak ikusteko eta jarraian, guztiak elkartu eta gehien gustatu zaiena hartu beharko dute. Hau egin ostean, biribilean kokatuko dira berriz aukeraketaren zergatia azalduko dutelarik eta jarraian, argazkiaren jabeak, argazkiari lotutako bizipena kontatuko du. Bukatzeko, argazkiarekiko interesa erakutsi duen ikasleak, etxera eramango du argazkia eta zerbait idatzi beharko du horren inguruan. Mezu hori, argazkiaren jabeak jasoko du hurrengo saioan eta guztiekin elkarbanatuko dute.

Zortzigarren jarduera: “Denon artean lor dezakegu!”

Jarduera honetan, bai talde txikietan (talde heterogeneoak) eta bai talde handian elkarlanean jardun beharko dute ikasleek proiektu bat aurrera eramateko. Beraz, bakoitzak bere trebetasunak martxan jarri beharko ditu taldeak aurrera egin dezan. Proiektuaren izenburua “Izurdeak” izango da, izan ere, taldean bizitzea beharrezkoa duten animaliak dira eta inteligentzia emozionala oso garatuta daukate, beraz, animalia hauen inguruko ikerketa lana egin beharko dute ikasleek. Honetarako, talde bakoitzari ikerketa bideratzeko galdera bat emango zaio eta honi buruzko aurkezpena prestatu beharko du gainontzeko taldeei aurkezteko. Behin hau eginda, daukaten informazio guztia batu eta

ikastalde osoak mural bat sortu beharko du. Murala bukatu ostean, azken galdera bati erantzun beharko diete: “Zein ondorio ateratzen duzue eta gurekiko ze antzekotasun daukate izurdeek?”. Bukatzeko, paper batean idatziko dute, taldean lan egitean nola sentitu diren, zer hobetu beharko litzatekeen, zer ikasi dute, eta abar.

Bederatzigarren jarduera: “Lagun ezkutua”

“Lagun ezkutua” azken jarduera izango da eta jarduera hauei amaiera emateaz gain, aurreko ekintzetan bezala, autoestimua handitzea, talde harremanak sendotzea eta komunikazioa sustatzea izango dira helburu nagusiak. Jarduera honetan, ikasle bakoitzak beste ikasle bati eskuz egindako opari bat prestatu beharko dio eta opari horrek suertatutako ikasle horren ezaugarri positiboak irudikatzea izango du helburu. Era berean, aholku positibo bat eman beharko die jarrera edo portaera hobetzeko. Oparia prestatzeko aste bete izango dute eta behin hau eginda, biribilean elkartuko dira eta opariak jasoko dituzte. Oparia aztertu eta ikusten dutena azaldu beharko dute, jarraian, benetako esanahia entzungo dutelarik. Honekin bukatu ostean, jarduera guztietan egindakoa biltzen duten hausnarketa bat egingo dute bakarka galdera batzuei erantzunez eta gero guztien artean elkarbanatuko dituzte erantzunak. Bukatzeko, sorbaldeetatik heldu eta besarkada handi bat emango diete elkarri.

Hamargarren jarduera: “Hitz goxoak niri, hitz goxoak zuri”

Jarduera hau, hiru hilabetetan zehar egunero egingo da. Ikasle bakoitzari egun bat esleituko zaio eta suertatzen zaion egunean, gainontzeko ikasleen mezu positiboak eramango ditu etxera irakurtzeko. Hurrengo goizean, lehenengo saioko bost minutuak erabiliko dituzte mezu horiek irakurtzean nola sentitu den adierazteko eta gehien gustatu zaion mezua zein den eta zergatik esateko. Honekin, ikasleen autoestimua handitzea bilatuko da eta era berean, besteen gaitasunen inguruan hausnartu eta kideen arteko harremanak sendotzea.

4. Ondorioak

Gaitasun handiko ikasleak asko dira munduan, baina askotan identifikatu gabe gelditzen dira eta horrek ondorio negatiboak izan ditzake bere garapen akademiko, kognitibo zein

pertsonalean. Beraz, ezinbestekoa da ikasle hauek identifikatzea hezkuntza erantzun egoki bat emateko. Honekin batera, gizarteak inposatu dizkigun zenbait mito eta uste izaten ditugu haur hauen inguruan eta honek ikasle hauen garapen egokia oztopatzen du, izan ere, nahiz eta ohikoa dena baino AK altuagoa izan, hezkuntza premia berezidun ikasleak dira eta ondorioz, beharizan jakin batzuk izan ditzakete. Hots, kontuan hartu behar dugu, potentzial intelektual altua izatea ez dela guztia jakitearen sinonimoa.

Era berean, aintzat hartu behar dugu ez dutela talde homogeen bat osatzen, hau da, ikasle hauen artean izugarriko aniztasuna dagoela, beraz, bakoitzak bere ezaugarri eta beharizanak izango ditu nahiz eta batzuetan antzekoak izan. Ez dago gaitasun handiko ikasleen perfil jakin bat, ondorioz, ez dago hauen beharizanei erantzuteko formula magikorik. Hau aintzat hartuz, ezinbestekoa litzateke halako ikasle bat gelan izanez gero, bere ezaugarriak eta beharizanak identifikatzea eta hortik abiatuta, hezkuntza egokitu bat eskaintzea.

Honekin guztiarekin batera, aipatu beharra dago, badaudela zenbait hezkuntza metodo, ikasle hauen beharizan akademikoei erantzuna ematea ahalbidetzen dutenak, hala nola, azelerazioa (kurtsoz aurreratzea), curriculum aberasgarritasuna, kurtso altuagoetako edukiak eta helburuak lantzea.... Baina non gelditzen da ikasle hauen alderdi pertsonalari eman beharreko erantzuna? Gehienetan uste izaten da ikasle hauek sozializatzeko zailtasunak dituztela eta ondorioz, baztertua egoten direla, baina ez gara konturatzen, askotan egoera hori guk geuk sortua izan daitezkeela eta ikasle hauei behar bezalako testuingurua eta giroa eskainiz gero, beraien gizartean moldatzeko trebetasuna hobetuko litzatekeela.

Ildo beretik jarraituz, nahiz eta ikasle hauen artean aniztasuna egon, kasu batzuetan ezaugarri komunak izan ditzakete eta adituek hauen garapen emozionalari dagokionez iritzi ezberdinak erakusten dituztela ikusi dugu, hala batzuek ikasle hauen konplexutasun kognitiboa eta konplexutasun emozionala lotzen dituzte eta beste batzuek, emozionalki edozein haur bezala gara daitezkeela diote.

Nire iritziak, aurretik aipatu dudak bezala, aniztasun handia dago ikasle hauek osatzen duten taldearen barnean ere, ondorioz, batzuek adimen emozionala lantzeko behar gehiago izango dute eta beste batzuk gutxiago, hau da, bakoitzaren oreka emozionalaren araberakoa izango da hau. Hala ere, ikasle hauek izan ditzaketen ezaugarri komunak aztertuz gero, ikus dezakegu esate baterako ikasle hauetan arlo guztiak ez direla aldi berean garatzen (eremu sozial, kognitibo, psikomotorra eta afektiboa), oso sentikorrek direla, beraien kezkek eta interesak ez datozela bat daukaten adinarekin... Ondorioz,

baliteke, gainontzeko hurrekin alderatuz gero, hauen emozioak nahasiagoak eta intentsuagoak izatea. Hala ere, iruditzen zait, gizarteak eragin zuzena daukala ikasle hauen emozioetan, izan ere, estereotipoak sortzen ditugu eta horien arabera jarduten dugu. Ondorioz, ikasle hauetan, bai gizarteak eragindako egoerak eta bai ikasle hauen ezaugarri propioek, alderdi emozionala lantzeko beharraren garrantzia nabarmentzen dute eta kontuan hartuta orain arte ikasle hauei emandako erantzun gehienak akademikoak direla, hezkuntza arloan eman beharreko aurrerapauso bat litzateke.

Alderdi emozionala lantzeari begira, garrantzitsua litzateke hau inklusioan oinarritutako testuinguru batean egitea, hau da, ikasleen artean dagoen aniztasuna onartzen den giro bat sortuz, gaitasun handiko haurrak ere ikastaldearen parte senti daitezten. Horrenbestez, ezinbesteko lehenengo pausua, planteatutako jarduerekin elkarrekintza bultzatzea litzateke, honela gainontzekoen indarguneak zein ahulguneak ezagutu ahal izateko eta horiekiko jarrera egoki bat sustatzeko. Era berean, aurretik ikusi dugun legez, gaitasun handiko ikasleak gizartean onartuak sentitzen ez direnean, ohikoena autoestimua baxua izatea litzateke, ondorioz, autoestimua hori indartzera bideratutako jarduerak ere ezinbestekoak lirateke.

Laburbilduz, ikasle hauek identifikatu eta hezkuntza berezi eta egokitu bat eman behar diegu. Horretarako, beharrezkoa da ikaslea ezagutzea eta bere indarguneak eta ahuleziak identifikatzea hezkuntza horien arabera egokitzeko. Honez gain, alderdi akademikoaz gain, alderdi emozionala ere aintzat hartu behar da, izan ere, nahiz eta akademikoki bikaina izan baliteke gizartean trakets samar moldatzea eta hori garatzeko beharrezko erakustea. Beraz, gaur egungo hezkuntzak erronka bat dauka, ikasle guztiak bere osotasunean garatzea, gizartean moldatzeko beharrezko diren tresnak eskainiz.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Albes, C., Aretxaga, L., Etxebarria, I., Galende, I., Santamaría, A., Uriarte, B. eta Vigo, P. (2013). *Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. 2016ko abenduaren 10ean kontsultatua, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.pdf
- Bellever, I. (2013). *Niños y niñas con altas capacidades intelectuales. Pautas para padres y madres*. Madril: CEAPA. 2017ko otsailaren 2an kontsultatua, hemendik: <http://sinlimites.altacapacidad.net/wp-content/uploads/2016/06/Blog-Ni%C3%B1os-y-Ni%C3%B1as-con-Altas-Capacidades-Intelectuales-CEAPA.pdf>

- Castro, M^a.L. (2008). Niños de altas capacidades intelectuales. *Educación y futuro*, 18, 163-176. 2017ko maiatzaren 3an kontsultatua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2572085>
- Elices, J. A., Palazuelo, M. eta del Caño, M. (2006). El profesor, identificador de necesidades educativas asociadas a alta capacidad intelectual. *Faisca: revista de altas capacidades*, 11(13), 23-47. 2017ko maiatzaren 2an kontsultatua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2441630>
- Espainiako Gobernua (2006). Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. *Boletín oficial del estado*, 106, 2006ko maiatzaren 4an argitaratua. Espainia. 2017ko maiatzaren 17an kontsultatua, hemendik: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2006/BOE-A-2006-7899-consolidado.pdf>
- Gerrig, R. eta Zimbardo, P. (2005). *Psicología y vida*. Mexiko: Prentice Hall Mexico. 2017ko maiatzaren 2an kontsultatua, hemendik: <https://books.google.es/books?id=3-I4Z1dAxo0C&printsec=frontcover&dq=psicologia+y+vida&hl=eu&sa=X&ved=0ahUKewix7eHjk5PUAhWEJhoKHdhiAWAQ6AEIJjAA#v=onepage&q=psicologia%20y%20vida&f=false>
- Gómez, M. T. eta Mir, V. (2010). *Altas capacidades en niños y niñas: detección, identificación e integración en la escuela y en la familia*. Madril: Narcea Ediciones. 2017ko maiatzaren 5ean kontsultatua, hemendik: https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=2KHjJPmKIZYC&oi=fnd&pg=PA13&dq=altas+capacidades+y+escuela&ots=uWm0Kb38Q_&sig=S44s1ltyG0sJqm-VS33BuTF05Zw#v=onepage&q=altas%20capacidades%20y%20escuela&f=false
- Hernández, M. C. eta Borges, A. (2010). Entorno escolar del alumnado de altas capacidades intelectuales frente a sus compañeros de distinto nivel de inteligencia. *Faisca*, 15(17), 36-49. 2017ko otsailaren 2an kontsultatua, hemendik: <http://revistas.ucm.es/index.php/FAIS/article/view/FAIS1010110036A/7643>
- López Díaz, R. (2010). Atención a las necesidades educativas especiales en alumnos con altas capacidades intelectuales. *Temas para la educación. Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 6, 1-10. 2017ko maiatzaren 12an kontsultatua, hemendik: <https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd6725.pdf>
- Luz de Luca, S. (2000). El docente y las inteligencias múltiples. *Revista Iberoamericana de la educación*, 11, 1-11. 2017ko maiatzaren 15ean kontsultatua, hemendik: http://rieoei.org/psi_edu12.htm
- Marina, J. A. (2012). Niños con altas capacidades. *Pediatría integral*, 16(3), 253-256. 2017ko otsailaren 2an kontsultatua, hemendik: <http://www.pediatriaintegral.es/wp-content/uploads/2012/06/Pediatria-Integral-XVI-3.pdf#page=61>
- Martín, M. P. (2004). *Niños inteligentes. Guía para desarrollar sus talentos y altas capacidades*. Madril: Gráficas Anzos. 2017ko maiatzaren 18an kontsultatua, hemendik: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=HDwxuSPOYUC&oi=fnd&pg=PA46&dq=dabrowski+2004+altas+capacidades&ots=GASXRWmvi1&sig=D5ABY5THPFnnvcoCldPOIgc-3t0#v=onepage&q=dabrowski&f=false>
- Moya, A. eta Miguel, A. (2011). Conceptos generales del alumno con altas capacidades. In, J. C. Torrego, et al., *Alumnos con altas capacidades y aprendizaje cooperativo* (pp. 13-34). Madril: SM fundazioa. 2017ko maiatzaren 17an kontsultatua, hemendik: <http://www.orientacionandujar.es/wp-content/uploads/2014/07/Altas-capacidades-y-aprendizaje-cooperativo.pdf>
- Palazuelo, M. M., Marugán, M., Del Caño, M., De Frutos, C. eta Quintero, M. (2010). La expresión emocional en alumnos de altas capacidades. *Faisca*, 15 (17), 50-66.

- 2017ko maiatzaren 5ean kontsultatua, hemendik: <http://revistas.ucm.es/index.php/FAIS/article/view/FAIS1010110050A>
- Patti, J., Brackett, M., Ferrándiz, C. eta Ferrando, M. (2011). ¿Por qué y cómo mejorar la inteligencia emocional de los alumnos superdotados?. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 14(3), 145-156. 2017ko maiatzaren 2an kontsultatua, hemendik: http://www.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1324678956.pdf
- PEAC: Programa de Enriquecimiento Educativo para alumnos con Altas Capacidades. (2017). *Clasificación de altas capacidades*. 2017ko maiatzaren 12an kontsultatua, hemendik: <http://www.educa2.madrid.org/web/acdca/clasificacion-a.c>
- Peña del Agua, A. M. (2002). Superdotación: factores culturales y barreras sociales. *Revista de educación*, 4, 261-269. 2017ko maiatzaren 5ean kontsultatua, hemendik: <http://www.uhu.es/publicaciones/ojs/index.php/xxi/article/viewFile/628/968>
- Tourón, J. (2004). De la superdotación al talento: Evolución de un paradigma. In, C. Jiménez, *Pedagogía Diferencial. Diversidad y equidad* (pp. 369-499). Madril: Pearson Educación. 2017ko abenduaren 14an kontsultatua, hemendik: <http://dadun.unav.edu/bitstream/10171/19959/1/De%20la%20superdotacion%20al%20talento.pdf>
- Tourón, J. (2016). Mitología de la alta capacidad. *Ined21*. 2016ko abenduaren 8an kontsultatua, hemendik: <http://ined21.com/mitologia-de-la-alta-capacidad/>